ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 13a, astelehena • 55 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Interesdunak epatzea 182/2019 prozedura arruntera – 2. atala

Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, espedientea hau abiarazi eta bidaltzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietarako Aretora: 182/2019 prozeduran arrunta–2. atala, Xabier Goikuria Oiarbidek Aguraingo Udalaren 2018ko abenduaren 20ko erabaki baten aurka jarria; erabaki hori 2019ko urtarrilaren 16ko ALHAOn (7. zk.) argitaratu zen eta behin betiko onesten zuen Aguraingo herrigune historikoaren Birgaitzen Integratuko Plan Bereziaren berrikuspena, hain zuzen ere iparraldeko parke, R10 UP 3 azpizona, 17 E etxadi gisa identifikatutako azalera dela-eta ezarritako ikerketa ekonomikoa eta programa. Era berean, zeharka bada ere, Aguraingo Udal Antolamendurako Plan Orokorraren espedientearen zati bat behin betiko onesten zuen 148/2011 Foru Aginduko hirigintza arauen eta agiri grafikoen (ALHAO, 2011ko apirilaren 13a), Egileor, Alangua eta Arrizalako herriguneekin zerikusia duen Aguraingo Udal Antolamendurako Plan Orokorrari behin betiko onespena ematen zioen urriaren 6ko 242/2016 Foru Aginduaren eta martxoaren 28ko 148/2011 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzeko onespenaren aurka ere egiten zuen. Azken foru agindu horren bidez behin betiko onetsi zen baldintzekin eta bertan behera utzi Aguraingo Udal Antolamendurako Plan Orokorra honako honi dagokionez: AIU 1 arean (Erdi Aroko herrigunea) sartzea 9F 1004 lursaila, 1.313 metro koadrokoa, egun AIU-9 arean dagoena (04 lurzatia, Hego Zadorra), hasiera batean onartutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasoa.

Iragarki honen bidez, epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, prozeduran agertu eta pertsonatu dadin, bederatzi eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agurain, 2019ko apirilaren 30a

Alkatea
IÑAKI BERAZA ZUFIAUR

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.13 05:31:36 Z